

**2025eko Espainiako eta Europako sariak frankizia arloan**  
**EROSKI URTEKO "FRANKIZIA EMAILE" IZENDATU DUTE**  
**ELIKAGAIEN SEKTOREAN**

- EROSKI bosgarrenez aitortu dute urteko frankizia emaile, Frankiziaren Espainiako eta Europako sariketan elikagaien sektorean.
- Kooperatibak 2025ean sendotu zuen frankizia sarearen hazkundera 46 irekiera berri eginda, eta dagoeneko 600 supermerkatu baino gehiago ditu frankizian Espainia guztian.
- EROSKIren frankizia eredu ezaugarri jakin batzuegatik nabarmentzen da, hala nola hurbiltasuna, lehiakortasuna eta frankizia hartzaileri emandako laguntza etengabea. Ardatz gisa, berriz, aurrezpena, bertakotasuna eta tokiko produktua ditu.

**Madril, 2026ko maiatzaren 12a.** - [EROSKI](#)k 2025. urteko frankizia emailearen saria jaso du elikagaien sektorean. Madrilen egiten dute gala, Frankiziaren Espainiako Elkarteak antolatuta, Espainia eta Europa mailako sariak banatzeko. Sendotasuna eta lehiakortasuna aitortu diote EROSKIren frankizia ereduari, baita frankizia sareari lagun egiteko eta babesa emateko duen prestasun etengabea ere; era berean, kooperatibak kudeaketaren alorrean garatu duen bikaintasuna eta hazkunde iraunkorra aitortu dizkiote.

Zazpigarren aldia da EROSKIren frankizia sarea aitortzen dutena, eta bosgarrenez lortu du urteko frankizia emailearen garaikurra. Aitortza hauek prestigioa ematen diote Espainian eta nazioartean, eta balioa ematen diote frankizien sisteman diharduten eragile nagusien zereginari.

"Sari honekin, aitortza egiten zaio gure frankizia sarearekin batera egiten dugun lanari. EROSKIin jarraitzen dugu frankizia eredu sendo, hurbil eta errentagarri baten alde egiten, oinarritzat harturik konfiantza, etengabeko laguntza eta lankidetzatza. Gure helburua da komertzioarekiko dugun ikuskera eta kontsumitzaileei zerbitzu emateko dugun bokazioa ulertzen duten ekintzaileekin batera haztea", nabarmendu du **Alberto Cañasek, EROSKIren Frankizietako zuzendariak**.

EROSKI eskaintzen duen frankizia eredu oso lehiakorra eta errentagarria da; kooperatibak eta frankiziatuek duten harreman estuan oinarritzen da. Eredu honetan nabarmentzekoak dira hurbiltasuna, freskoen kalitatea, tokiko produktua eta familientzako aurrezkiea. Salerosleak zuzenean kudeatzen du bere negozioa banaketaren sektorean eskarmentua duten profesionalen laguntzarekin eta sendo errotuta dagoen konfiantzazko marka batekin.

---

**EROSKI - Komunikazio Korporatiboko zuzendaria**

**Patricia Martín Sanchidrián**

Tel: 946 211 214 [comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

**INCÓGNITO - Prentsa bulegoa**  
**Silvia Peralta**

Tel: 917 379 950

Gaur egun, EROSKIk 600 supermerkatutik gora ditu frankizian, Espainia guztian banaturik. Kooperatibak erritmo sendoz handitzen eta finkatzen dihardu bere frankizia sarea, hori baita garapen komertzial hurbilekoaren zutabe estrategikoetako bat.

Bilakaera horri esker, gero eta aniztunagoa eta inklusiboagoa den sarea finkatzea lortu du. Gaur egun, hogeitazietako ekintzaileek kudeatzen dituzte EROSKIk frankiziatuak dituen 171 supermerkatu; horrek erakusten du kooperatibak nolako konpromisoa duen ekintzaileekin eta integrazioarekin, eta nola eratzen dituen enpresa aukerak, lurraldez lurralde.

Hazkunde eredu horrek hurbileko eta konfiantzazko harremana sustatzen du frankizia hartzaileekin, apustu egiten du ekintzailetza bultzatzeko eta enpresa garapenerako aukerak errazten dizkie askotariko soslaiei eta nazioarteko ekintzaileei.

### **Frankizia hartzaileen sarea indartu du 2025ean**

EROSKIk 46 frankizia inauguratu zituen 2025ean; horretarako, 9 milioi euro baino gehiago inbertitu zituen, eta 276 lanpostu sorrarazi. Katalunian eta Andaluzian pilatu dira irekiera gehienak; hala, indartu egin da hedapenerako estrategikoak diren lurraldeetan konpainiak duen presentzia.

Kooperatibaren asmoa da hazkuntza erritmo horri eustea 2026an, 50 frankizia berri baino gehiago irekita; horretarako, fokua jarriko du Katalunian, EAEn, Andaluzian, Madrilen, Levanten, Galizian eta Balearretan, hazkunde estrategia iraunkor eta hurbilekoaren ildoan.

EROSKiren frankizia eredu indartzen ari da; izan ere, bere proposamen komertzialak oinarri sendoak ditu: aurrezkia, hurbiltasuna, freskoen kalitatea eta tokiko produktua, guztiz lerrotuta dagoena gaur egun kontsumitzaileek dituzten lehentasunekin. Horretaz gainera, konpainiak jarraitzen du efizientzia operatiboan eta digitalizazioan aurrera egiten, eta tresnak eta soluzioak txertatzen, frankizia hartzaileen kudeaketa eta errentagarritasuna gero eta hobekiago izan daitezen.

Ereduaren sendotasun adierazle nagusietako bat zera da, EROSKiren frankizia erako denden %45 frankizia hartzaile batek baino gehiago kudeatzen dituela; horrek erakusten du luzera begira nolako konfiantza eta egonkortasuna dituen proiektuak.

Horretaz gainera, 2025ean frankiziarik onenaren sariarekin aitortu zuten "Supermerkatu erako frankiziak" kategorian, 2026ko Urteko Merkataritza Sarietan. Kontsumitzaileek ematen dituzte sariok, eta Espainian kontsumitzaileen arloan denik lehiaketarik handiena da. Lehengoz gainera, 2025 honetan Espainiako eta Europako Frankizia Saria jasota, indartu egin dira frankiziaren proposamena eta erakargarritasuna.

### **EROSKiri buruz**

EROSKI banaketa talde liderretako bat da Espainia iparraldeko merkatuan —Galiziatik Balearretara—, %12,32ko merkatu kuotarekin; eta liderra da Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Galizian; lidergoan da halaber Balearretan ere. 2025aren amaieran, 1.508 saltoki zituen bere sare komertzialean: besteak beste, supermerkatuak, hipermerkatuak, cash & carry-ak eta online supermerkatuak, baita gasolindegia, kirol dendak eta elikagaien arlokoak ez diren beste negozio batzuk ere. Horretaz gainera, 6 milioi Bezero Bazkide baino gehiago ditu, eta 28.000 lagunek baino gehiagok osatzen dute langile taldea; horietatik 8.300, berriz, bazkide eta jabe dira.